

# “GUSTUKO DUGU ADITUEKIN OSO INTERESGARRIAK ZAIZKIGUN GAIEZ HITZ EGITEKO AUKERA IZATEA”



*Amaia Urzelai | IES Hernani BHI | Batxilergoa*

Amaia Urzelai IES Hernani BHI ikastetxeko “Neutrinoak” taldeko irakasle arduraduna da, eta Kosmodiseako Ikono Planetan Batxilergo kategoriako lehen postua lortu dute.

## ***Nola jaso du taldeak Ikono Planetan jasotako saria?***

Poz handia sentitu dugu, eta datorren fasean ildo beretik jarraitzeko indarrak eman dizkigu. Gogor egin dugu lan eta emaitza ona espero genuen. Puntuazioa merezitakoa dela uste dugu.

***Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?***

Alde batetik, 20 minututako elkarrizketa bi minututan laburbiltzea, informazio oso interesgarria bildu baikenuen. Bestalde, gure arteko koordinazioa nahiko konplexua izan da, udalerrri ezberdinetan bizi baikara.

***2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?***

Taldean lan egitea eta adituekin oso interesgarri deritzogun gaiez hitz egiteko aukera izatea.

***Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?***

Taldeko kide guztiak biltzeko une egokia aurkitzea.

***Nola egiten diozue aurre Kosmodiseako gainerako ekimenari?***

Taldean lan eginez eta lan on bat egiteko asmoz.

***Beste urteetan parte hartu baduzue, zein ezberdintasun ikusten dituzu aurtengo eta beste urteetako edizioetan? Egokiak eta onuragarriak al dira Kosmodisearen funtzionamenduan txertatutako aldaketak?***

Ez dugu Kosmodiseako beste edizioetan parte hartu. Lehen urtea da gure taldearentzat. Azken bi urteotan gure ikastetxeko beste talde batzuek hartu dute parte. Esan digutenez, aurtengo lehen fasean egin dituzten aldaketak onuragarriak izan dira proiektua hobetzeko. Adibidez, adituei egindako elkarrizketak.